

IRITZIA
Pello Rubio

ERREPORTAIA
Gelaxorrotako
astoak

KALE INKESTA
Mesederako ala
kalterako al da
eguraldi hau?

UDALETXETIK
Basarte, Elgoibarko
kale berria

GEHIGARRIA
Zaharrak Berri:
Tomas Cano eta
Isabel Ruiz, 60 urte
ezkonduta



BERBETAN
Marcos Etxaniz eta
Irma Baldomir,
Argentinatik aitaren
herria ezagutzera


KULTURA
Trinitate jaiak
maiatzaren 25ean

BARRREN

1997ko apirilaren 18a
V. urtea - 191. zkia

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A

Astoa, animalia ahaztua



“Gi zaki en hezi ket a ani mal i ak t rat at zeko er an i kust en da.”



*Esozia etorbidea, z/g
Tel: 15 10 01
20590 soraluze*

Berezitasunak eta sujerentziak

*Txibien brick-a, solomilo eta honddoen
salteatua, etxeko biscuit-en
degustazioa, bildots osoa burduntzian
(udaberrian), honddoak plantxan
(udazkenean), etxeko gozogintza.*



Etorri eta
ikus
itzazu



Gabonetan zozketaturiko urrezko bi erlojuen irabazleak
Paqui Salina eta Iaki Figueiredo dira.
Mila esker bezero guztietan ZORRIANAK irabazleei!

Baserritik bizitzerik bai?



PELLO RUBIO

Horra hor, bada, eszeptizismoz beteriko galdera. Kaletarrak ezezik baserritar askok ere egiten du honelakorik. Gainera, modu horretan planteatzen da zuzenega ez izateaz gain iritzi orokorra dena, hau da, gaur egun ezin dela Elgoibarren baserritik bizi.

Lerrootan zehar iritzi orokor honi buelta ematen saiatuko naiz, behin-betiko ustezko ezetz horri zalantza puntu bat jartzeko besterik ez bada ere. Horretarako azkeneko hiru hitzak hartuko ditut: Elgoibarren, baserria eta bizitza.

Elgoibarren

Egia esan behar bada, herriko nekazal sektorea egoera kezagarrian dago. Gora-behera historikoez, eragozpen orografikoez eta politika ekonomiko estuegiak horretara bultzatu gaitu. Elgoibarko 7 auzoetan 200 baserri etxe dira. Honek ez du esan nahi horrenbeste nekazal esplotazio daudenik, zoritxarrez askoz gutxiago dira. Produkzio motak lurralde azalerari dagokionez, honela aurkitzen dira:

- Basogintzak mendi sail gehienak hartzen ditu. Irizipide ekologikoei kasurik egin gabe Intsignis pinua da nagusi, errentagarriena baita.

- Elgoibarren 20 baserri dira bertatik bizi diren bakarrak (%10), gehienak abelazkuntzatik. Hauek 17 baserri dira.

Beraz, nekazaria Elgoibarren espezie arraroa bihurtu da, are gehiago, bertatik bakarrik bizi bada eskusiboki, desagertze bidean dagoela esaterik badago.

Paradojokoki, egoera honek abantailarik eskaini diezaioke iharduera honetan jarraitu nahi duenari eta zergatik ez, hasi berriari ere bai. Konpetentzia eskasa da eta honez aparte,

merkaturatzea ikutu gabeko mundua da. Buruari eragin eta orijinalak izanez gero, baserriak sor dezake ilusiorik.

Baserria

Elgoibarko baserriak txikiak dira, azalera eskasekoak eta aldapa demasekoak. Honek beti egin du zaila bertatik errenta ateratzea.

Egoera beltz honen alternatiba, dibertsifikazioa batetik, betiko produkzioaz aparte (okela, esnea eta pinua) bestelakoa lantzea da (ogia, ezitia, loreak, nekazal turismoa, baserriko arraultzak eta oiloak, fruitagintza, barazki-gintza etab.). Produkzio bakarraren menpekotasuna eta merkatuarekiko autonomia eskaini dezake honek.

Bestetik, zuzeneko salmenta eta komertzializazio bide berriak leudeke. Kontsumitzailearen osasuna eta ingurugiroa zaintzen dituzten kalitate handiko produktuak.

Nekazal iharduerak bere lekua lortu behar du gizartean erabakiak hartzen direnean kontuan har gaitzaten. Gutxi izan arren, kualitativoki garrantzi handiko giza-taldea gara.

Bizitzea

Hona hemen txinatarren esaera bat:

“Egun batez zoriontsu izan nahi bauduzu, mozkortu zaitez”

“Hilabetez zoriontsu izan nahi baduzu, egin bidaia bat”

“Urtebeteko zoriontasuna nahi izanez gero, ezkondu zaitez”

“Bizi guztirako zoriontasunerako, nekazaria izan”

Zoriontasuna lortzeko alternatiba eskaintzen dizu nekazaritzak. Naturaren erritmoarekin bat egiten duen bizitzeko estiloa.

“Zoriontasuna lortzeko alternatiba eskaintzen dizu nekazaritzak”

Atal hau ez da **BARREN**en editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.





Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
☎ 74 41 12
Publizitatea:
☎ 74 37 04
Faxa: 74 37 04

ARGITARATZAILEA

Elgoibarko Izarra

LAGUNTZAILEA

Elgoibarko Udala

ZUZENDARIA

Ainhua Lodoso

ERREDAKZIO KONTSEILUA

Andres Alberdi,

Rosa Agirregabiria, Mikel Kortabitarte

KAZETARIAK

Ainhua Lodoso, Jasone Osoro

PUBLIZITATEA

Miren Moreno

MAKETATZAILEAK

Mikel Cornejo

ADMINISTRAZIOA

Amaia Martin

M. Angeles Ortuoste, Rafa Alvarez

KOLABORATZAILEAK

Irati Agirreazaldegia,

Gemma Agirregomezkorta, Itziar Ajuria,

Ion Arrieta, Agurtzane Arriola,

Eduarne Bilbao, M. Angeles Exposito,

Amaia Gorostiza, Juanito Gorostiza,

Ane Guilló, Jon Gurrutxaga,

Anton Iriondo, KOKOE,

Imanol Larrañaga, Javi León,

Jokin Martinez, Juan Luis Mugertza,

Ongarri Zine Kluba,

Pello Rubio, Ixidor Solupe,

Leire Urkidi,

Unai Villena eta Julen Zabaleta

BANAKETA ARDURADUNA

Imanol Larrañaga

INPRIMATEGIA

Gertu Koop. E.

TIRADA

4.000 ale

LEGE GORDAILUA

SS-1.038/92

ISSN

1133-021X

Elgoibarko Udalak, Eusko
Jaurlaritzako Kultura
Sailak eta Foru
Aldundiak diruz
lagundutako
aldizkaria.



Guraso despistatu baten "peripeziak"

Lehenengo eta behin nire despistea aitortzea tokatzen zait: ZORTZI HILABETEKO UMEAREN ESNEA EZ DUT GARAIZ EROSI. Hori dela eta, igande gauean etxera heltzerakoan, konturatzen gara ez daukagula esne hautsik umeari biberoria prestatzeko. Hortxe hasten dira nire "peripeziak".

BARRENen begiratu zein farmaziari tokatzen zaion txanda. ZABALETA da, baina ez du jartzen nongoa den, ezta telefono zenbakirik ere. Listinean begiratu eta hemen ere ez da azaltzen.

Anbulategira deitu eta farmazia hori nongoa den galdetzen diot. Erantzuna: -barkatu, ez naiz hemen goa, ez dakit.-

Udaltzaingora deitu berdina galdetzeko asmoz. Hemen "buzón de voz" batek mezua lagatzeko eskatzen du, eta erantzungo dutela ahal duten azkarren. Oraindik erantzunaren zain nago.

Herriko farmazia batera joan eta irakurtzen dut ZABALETA Soraluzeko farmazia bat dela. Autoa hartu eta han noa, "Plaentxi di notxi" ikustera.

Farmaziara heldu eta tinbrea jo ondoren, errezetarik gabe ezin dutela ezer eman, erantzuten didate. Nere (umearen) arazoa kontatu ondoren, farmaziakoak esnea saltzea lortzen dut. Baina kasualitatez ez dauka nik nahi dudana markakoa. Farmaziakoak Soraluzen esne marka hori modan ez dagoela esaten dit.

Beste esne marka bat erosi eta gero, hor nator bueltan Elgoibarrera buruan gauza bakar bat dudala bueltaka: zer egin behar dut umeak ez badu nahi esne hau? (gustu diferentia daukalako edo...)

Azkenean biberoria prestatu, zerealak bota gustua disimulatzeko eta DENA BARRURA!! Hau da poza!!

Badakizue, despistatuok, garaiak erosi farmaziatik behar dituzuen gauzak, bestela...

R.A.

Patronatuko lantaldeak merezi du txaloa

Apirilaren 11ko BARRENen "Txaloak" atalean azalduko aipamena eskertu nahi nuke. Hala ere, ez nuke nahi Udal Kirol Patronatuaren eguneroko lana niregan pertsonalizatzerik.

Udal Kirol Patronatua lantalde bat da; erabakiak Junta Errektoran hartzen dituztenetik hasita eguneroko jardunean diharduten administrari, monitore, harrerako ardurdun, garbitzaile eta bestelako lankideak barne.

Gure ahaleginean zebitzurik egokiena eta zabalena eskaini nahian jarraituko dugu, beti ere herritarren konfidantza eskuratu asmoz eta hauek gure lanarekin gustura sentitzeko.

Ramon Mujika Patronatuko zuzendaria

GALDERAK

◆ Gazte batzuek galdera hau luzatu nahi diote Caja Laboral-Euskadiko Kutxako arduradunei: **“Zein eskubiderekin grabatzen du Caja Laboraleko kutxazain automatikoko bideo kamarak kalean gertatzen dena?”**

Caja Laboraleko kalitate sailetik honako erantzun hau luzatu digute:

“Caja Laboralak **gune pribatu batean** dauka koka-

tua kamara eta helburua **kutzazain barruan** gertatzen dena grabatzea da. Legeak horretarako baimena ematen digu. Kalean zer gertatzen den hartzen duena zirriborro modura grabatzen du kamarak. Hala ere, jakin ezazue kutxazain barruan **zerbait gertatzen denean soilik ikuskatzen direla zintak**. Gai nontzean ez dira begiratzen”.

KEXAK


◆ Urasandiko bizilagun bat etorri zaigu ondoko kexa hauekin: “Batetik, kaleko jende guztia ixotzen da txakurrekin eta **bide guztia karkaz beteta egoten da**. Gainera, bide berdian bi zakarrontzi daude apurtuta eta taparik gabeko paper kontenedore bat. Papelak bota eta haiziak eruaten di-txu. Ez dago garbitasunik. Kalian

nahi ez dabena ixotzen digute. Ez dago garbitasunik eta ume asko ibiltzen da inguruan eskolara bidian”.

◆ **5. mailako neska talde bat** etorri da honako kexa hau esatera: **“5. mailako futbol ekipoa mutilena bakarrik egin dute**. Nesken zergatik ez? Norbaitek azalpenak ematea gustatuko litzaiguke”.


TXALOAK

◆ Herritar batek Parrokia-ko Lanen Batzordea txalotu nahi du **kanpaiak** jarri dituztelako.



◆ **“Atxutxiamaika taldekoei** txalo bat eman nahi diegu, Brinkolan oso-oso ondo pasatu genuelako. Eskerrik asko”.

BAI, ESAN?



KARMELO
URDANGARIN
Ekonomian aditua

Sindikatuak eta Patronalak hitzartu berri duten Lan Erreformatarako lege berriak kritikak jaso ditu zenbait sindikaturen aldetik. Beste zenbait indar sindikal eta enpresarialen aldetik, berriz, txaloak izan dira nagusi. Oraindik ere ikusteko dago erreforma honek zer ekarriko dion lan munduari. **Karmelo Urdangarin ekonomia gaietan adituarekin** honi buruz mintzatu gara.

- **Mugagabeko kontratu berri bat jasotzen omen du besteak beste, lege berriak.**

- Hitzarmen hau ezin daiteke lorpen historikotzat jo (azken hogeitaz urteotan beste bost hitzarmen egon dira). Mota honetako akordio guztiek bezala, hitzarmen honek ere ez ditu inplikaturako parte guztiak asetzen eta are gutxiago akordioan parte hartzerik izan ez dutenak.

- **Lanaren prekarietatearen arazoa konpontzen lagunduko al du erreformak?**

- Gaur egungo kontratu gehienek eta 45 urtetik gorako kontratuen prekarietate handi ia gehienak konpontzen lagunduko du, batez ere Gobernuak behin-behineko kontratuak garestitzen baditu (Seguritate Sozialean gehiago kotizatuz) eta modalitate berria sartzin badu.

- **Gazteen arteko langabezia tasa jaitsiko al da erreformarekin?**

- Erreformak ez ditu lanpostuak sortuko. Lanpostuak gestio enpresarial on baten ondorioz sortzen dira. Gerta daiteke pertsona okupatuen kopurua handitzea bai eta langabetuena gehitzea ere, ikasle askok edo lan mundutik kanpo dauden beste askok lan egitea erabakitzen dutelako, eta ez enplegu berriak sortzen direlako.



ESKERTZA

1997ko apirilaren 13an, 63 urte zituela hil zen
IONE KAREAGA GOJENOLAren sendiak bere omenez egin zen
mezara joan ziren guztiei **ESKERRAK** eman nahi dizkie.



Gelatxorrotako

9 as

“Txou, txou, txou, txou, txou...”. Pinadietara begiratu eta ezer ere ez. “Txou, txou, txou, txou...”. Berrito begiratu eta, ezer ere ez. “Txou, txou, txou, txou...”. Halako batean, txintxarri hotsa mendian behera. “Txou, txou, txou, txou...”. Eta hara non agertzen den pinu artean lehenengo, eta bigarrena, hirugarrena... Bederatzi asto. Hiru ar eta sei eme. Gelatxorrota baserriko Justo Arriolak duela bi urte ekarri zituen, pinadiak garbitzeko.

Gaur egun desagertzeaz dagoen animalia omen da astoa. Garai batean baserriko lanetan laguntzeko etxe gehienetan asto bat edo beste izaten zuten; esnea partitzeko, gurdia garraiatzeko... Baina, teknikak astoari bidea jan zion eta, poliki-poliki, gure baserrietatik astoa desagertzen hasi zen.

Portugaletik ekarritako astoak

Halere, Justok orain bi urte inguru astoak erostea erabaki zuen. Arrazoia? Pinadiak garbitzea. Portugaletik ekarritakoak omen dira. Justok esan digunez, “asto tratantiak saldu baino lehen Gasteizko jaixetara eruan zitxun astuak, hango jaixan ibiltzeko. Hola negoziua bi bider eitzen dau, jaixetan lengo eta saltzerakuan gero”.

Orain arte mendiak garbitzeko langileak kontratatzen zituen Justok, “baina karua urtetzen zatan. Nik pagau izan dot orduko 1.300 pta! Eta hola ezin naban segitxu”. Hasiara batean zaldiak erostea pentsatu zuen, “baina esan zien astua hobia zala. Zaldixak, gehixo jaten dabala baina belar garbixa. En kanbio astuak larra eta ere jaten

dau. Gainera, hankia ere txikixaua daka eta pinu txikixa sartuta dauan tokian hobeto ibiltzen da Animala gogorra da”.

Egunero-egunero, joaten da Justo astoengana. Izan ere, belarrak gain garagarra, olua eta ogia ere ematen die jateko, “mendixan gora egoten badia ere, nik deitxu eta segiduan bajatzen dia. Badakixe etorri eta jaten emango diuetela. Belarra ez dan zeozer jango dabela”. Justorekin berriketan, inguruan genituen astoak, jabeak jaten noiz emango zain. Txintxo-txintxo. Halere, Justok ogia ontzira bota bezain pronto, astoak hurreratu eta ikustekoak ziren haien borrokak, ea nork zer lehenago hartuko. Asto bat, ertzean geratu zen, beldurrez edo, “umia itxen lelengua izan zanari pentsu gehixo eman nion jateko, esne asko eta ona emateko. Gero ohitxu ein zan berari tratu berezixa ematen eta, oin ez die bestie trankil lagatzen. Baina asto noblia da”.

Nahi eta ezin

Batzuek jaten zeuden bitartean, asto txikietako bat oilo baten atzetik ko-



Astakumeak haunditzen diren artean amaren ondoan ibiltzen dira beti.

astoak

rrika dibertitzen zen. Eta, halako batean, asto zuri bat agertu zen, beste guztiak beltzak eta honako hau zuria. Kurioso benetan.

Kumeak normalean beti amaren ondoan ibiltzen dira, “beste ume bat in arte, ze gero esne dana bihar izaten dau bidian datorren asto txikixantzat”. Orain artean ar bakarra izan du Justok eme gutxiren artean, “eta danekin konpondu izan da. Hemen ez dao gure kasuan bezala parejarik eta holakorik, gogua dakenian in eta kitxo, baitxa kumiekin ere, anai-arrebak euren artian...”.

30 urte inguruko bizitza itxaropena omen du astoak. Animalia gogorra da, langile eta noblea. “Nik jakin baneu, lehen ekarriko nitxuzke astuok. Sekula ez ditzut mendixak oin bezain garbi euki. Ikusibe ezin laike sinistu selako kanbixua eman daban honek. Lehen belar luzia hasten zan tokixa garbi-garbi dau oin”. Batera eta bestera eraman gintuen Justok, tokian tokiko aldaketak erakusteko, “ikusten dozu hemen? Arbola honen onduan asuna dao. Hor, berriz, ezer. Zeozergatik izango da, astuak usain txarren bat edo hartuko zion asun honi eta, bertan laga dau, ikutu ere ein be”.

Perikito eta Periko zaharra


Urte osoan mendian ibiltzen dira astoak. Neguan, “eurak sartzen dia txabolan, egualdixa ez daonian oso ona. Eta zelan belarra ere gitxio egoten dan orduan, jateko gehixo eman bihar jakue. Baina, ostantzian, ez dabe lanik ematen. Urtian behin parasituak hiltzeko bakunia eman eta kitxo”. Izenik ez omen die jarri Justok astoei. Bati bai. Dirudienez, Justoren bilobak asto txiki bati “Perikito” deitzen omen dio eta honen aitxari, arrari, “Periko zaharra”.

Elkarrizketa osoan zehar gure atzetik asto bat izan genuen. Justo eta gu nora, bera atzetik. Geratuz gero, astoa ere bai.”Asto hau noblia da oso, man-

tsua. Baina, badaka haserria eme batekin. Lehen, arrak gogua zakan asto emeia “jotzeko”. Baina, emia zaharra dao eta, nahi ez, gogorik ez. Arrak ez zion barka-tzen eta ondiok ere, ikusten badia, jata hainka eitzen dio arrak. Lehen-guan ere jun bihar izan nitzan injekziua jartzera emiari. Haura ez da hurreratu ere eitzen honen onduan ez egotiatatik. Gero, eme gehixo ekarri eta danak “jota” ditzu honetzkeru, asetu dala us-tet dot”.

Kontu kontari joan zaigu denbora. Asto guztiak inguruan genituen. Batzuk askatik ura edaten, besteak egonean edo ogia jaten eta bat, ar zaharrena, gure atzetik. Kotxera hu-

rreratu garenean ere han izan da gurekin. Eguzkia sartu aurretik berriz ere mendirantz joango dira 9 astoak. Hurrengo egunean berriz ere Justoren ahotan “txou, txou, txou!” entzun arte.



Justo Arriola egunero joaten da astoei jaten ematera.



Pinadiak garbi-garbi uzten dizkiote bederatzi astoek Justori.

Eguraldi hau sasoi honetan ona ala txarra al da?



TERE LOBETE
39 urte, irakaslea

Zoragarria iruditzen zait. Gehien gustatzen zaidana da ez duela egun lainotsu eta ilun horiek egiten. Hala ere, nekazarietzat ez da ona izango.



DOLORES FERNANDEZ


37 urte, etxekoandrea

Momentuz ona da baina ikusi egin beharko da gero zer nolako uda izaten dugun. Udan mantenduko baltiz ondo, baina euria eta hotza egiten badu...




GEMMA MONREAL
36 urte, pintorea

Oso atsegina da baina ni eurizalea naiz. Gainera, ez da normala hain segidan ona egitea eta baserrientzat eta kutsadura garbitzeko euria egin beharko luke.



ROBERTO MERINO
53 urte, langabetua

Oso ona. Urarekin ez dugu arazorik baina, hala ere, euririk ez badu egiten kutsadura ez da garbitzen eta gaisotasunak heda daitezke.



SERAFIN MARTIN
23 urte, marinela

Hobea egin beharko luke! Bero gehiago! Euri nahikoa egin du orain arte eta ez dut uste gehiago behar dugunik. Momentuz jarrai dezala eguraldi onak.



JON ASENSIO
31 urte, arotza

Argi dago eguraldi hau ez dagokiola sasoi honi. Dena dela, azken urteotan ohitu egin gara eguraldi aldaketa hauetara beraz, ez naiz harritzen.

KEMEN Belardenda



Estutasuna, antsietatea, depresioa, lo ezina, tabakismoa, loditasuna, fobiak,... tratatzen laguntzen dugu. Zatoz, ez zara damutuko!

NATUROPATA - Programazio neurolinguistikoa (Practificioner eta Masterra) - **MASAJEA** - **REIKI**
- Osatze naturalaren **USUI** sistema

San Bartolome 25 · Tel: **74 40 31** · ELGOIBAR

ITURRI
Taberna

Foruen Plaza, 5 - ELGOIBAR



INTURAK
PEDRO PEREZ BERISTAIN
San Roke, 30 behea. ☎ 74 36 52 - 74 27
KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA

Eguraldi sikua, mesedegarria ala kaltegarria?

Denon gustura euria egiterik ez dagoela dio esaera batek. Egia esan, euria gutxitan ikusi dugu goitik behera jausten azkenaldian. Sekula baino negu sikuagoa pasatu dugula diote komunikabideek eta azken hilabeteotako eguraldia ikusita, udaberria ere antzerakoa izango dugula dirudi.

Urtarril bukaeratik apenas egin duen euririk. Otsailan 37,7 litro besterik ez ziren erori metro karratuko, 1928tik hila-bete lehorrena izan delarik. Martxoan beste horrenbeste gertatu zen, are sikuagoa izan zen, 14 litroekin metro karratuko. Eta apirilari buruz, zer esan! Gaur arte ez ditugu pare bat tanta ikusi.

Osasuna

Eguraldi siku hau mesederako izan da batzuentzat eta kalterako besteentzat. Erreuma dutenak, hezetasunari alergia diotenak edo eta eguraldi umelarekin kaxkar ibiltzen direnak primeran dabilta giro lehorrari esker. Polenari alergia diotenak, berriz, musuzapia sudur partetik kendu ezinik dabilta, euri falta dela-eta polena airean geratzen baita eta eguratsa ez da berritzen. Atmosferako kutsadura garbitzeko ere beharrezkoa da euria egitea.


Nekazaritza

Euri gabeziak nekazaritzan eragin ditzake kalterik

garrantzitsuenak. Dagoeneko zenbait kasutan kalteak egon badaude, Asier Albizu DEBEMEN elkarteko teknikariak adierazi bezala. Euri eskasiak basogintzan izan du eraginik nabarmena. “Aurtengo neguan landatu diren pinuak erabat horituta daude, erdi-sikatu-ta. Arraten 500 haritz landatu ditxugu eta sikatzen ha-

sitxa daoz”. Bel-larrarekin ere beste horrenbeste gertatzen ari da. Iaz, sasoi honetarako, “gutxienez bi aldiz moz-

tu zan belarra eta aurten behin bakarrik edo bat ere ez”. Asierren esanetan, “oin hasi eta irailerarte bost bat bider moztan da belarra. Mozketa bat ein dabanak, zimaurre zabaltzeko belarra moztuta eon bihar dalako moztu dau, eta askok belarra moztu barik zabaldu dau zimaurre”. Basoak artifizialki ureztatzea ezinezkoa dela aipatu digu Asierrek. “Batetik, gure ingurua oso aldapatsua da eta ura baserrietara eramatia oso problematikua eta garestixa izaten da”. Une honetan Mendaroko zenbait baserri-tako manantialak zikatu egin dira eta zisternen bitartez ari dira ura bertara eramaten. “Gainontzian ez dao problemarik. Gure baserrietako ortuak txikixak dianez, ez da problemarik egoten mangeriakin ureztatzeko”.



iSPILUA- BERI DEGIRA



*Aitor
Iturri-Kastillo.*

PILONeko
banatzailea

– **Bizitza otartekoa balitz, zein osagai sartuko zenituzke?**

- Lagunak eta familia.

– **Zein da zure bizitzako motorra?**

- Etorkizunean gustuko lan bat eukitzia.

– **Nor eramango zenuke gustura parrilan?**

- Sharon Stone.

– **Zure bizitzako zein momentutan zapalduko zenuke freno?**

- Oporretan.

– **Eta noiz azeleradorea?**

- Ikasten eta lanean nauanian.

– **Zein tokitan geratu nahi zenuke gasolarik gabe?** - Miamin.

– **Zein da zure “tubo de escape”a?**

- Lagunekin urten eta juerga bat eixia.

– **Non izkutatuko zinake?**

- Mendixan.

– **Tabernak ala diskotekak?**

- Tabernak.

– **Iganderako planik onena?**

- Zapatuan juergia ein eta gero egun osua lo pasatzia.

– **Ba al dakizu kozinatzen?**

- Zeozer, hanburgesak eta.

– **Ba al duzu tekninarik ligatzeko?**

- Ez. Zeran bezelakua izan eta suertia badao ondo eta bestela, baitxa ere.

– **Magoa bazina, zein truko egingo zenuke?**

- Munduko gauza gehixenetan retokiak eingo nituzke.

– **Zein kontzertura joango zinateke?**

- Metalicaren batera edo.

– **Zein animaliarekin identifikatzen zara?**

- Akerrakin.

– **Kirolik egiten duzu?**

- Ez, alperra naiz.

– **Zer izan nahi duzu haunditan?**

- Medikua, zirujanua edo harakina.

● Euskal Eskola Publikoaren festa

Datorren domekan, hilak 27, Euskal Eskola Publikoaren 6. festa ospatuko da Donostian. Elgoibartik autobusak irtengo dira King-Kongeko zubitik goizeko 10etan. Izena emateko Herri Eskolara (74 08 79), Herri Institutura (74 02 67), Mendaroko ikastolara (75 61 41) edo Elgoibarko Izarrara (71 16 26) zuzendu. Autobusaren prezioa 500 pta.koa da 12 urtetik 18ra bitartekoen zatitza eta 1.000 pta.koa 18 urtetik aurrerakoentzat.

● Iruñeara txangoa Jubilatuen egoitzarekin

Datorren hilaren 14an, Jubilatuen Etxeak antolatuta, Iruñera txangoa izango da. Goizeko 8etatik Plaza Handitik aterata, itzulera gau partera egingo da. Izena ematerakoan, hilaren 28an beranduenez, 3.000 pta. ordaindu beharko dira.

● Igeriketa, buzeo eta tenis ikastaroak

Udal Kirol Patronatuak hiru ikastaro ezberdin antolatu ditu, hirurak 14 orduko iraupenekoak. Igeriketa ikastaroa hilaren 21ean hasiko da. Buzeo-koa gutxienez sei lagunekoko taldea osatzen denean hasiko da. Klaseak astelehen eta asteazkenetan arratsaldeko 8:30etatik 9:30etara bitartean izango dira edo larunbat goizetan. Teniseko ikastaroa antolatzeko ere sei pertsonako taldea osatu beharko da. Ikastaro honek honako ordutegi hau izango du: astelehena eta asteazkena 20:00tik-21:00era.

Izena emateko 74 44 15 zenbakira deitu.

Martxoko grebak eragindako kalteak merkatarien artean ordainduko dira

Joan den ostegunean, 52 merkatarik bilera egin zuten iragan martxoaren 7an HBk deitutako greban gertaturikoa aztertu eta baloratzeko asmoz. Bileran izan zen merkatarik batek azaldu digunez, "oso garrantzitsua izan da guretzat gertaera baten aurrean merkatarikak biltzea eta denon artean adostutako erabaki bat hartzea, egun horretan dendak zabaltzea, alegia. Nahiko ondo eutsi genion gure asmoari, izan ere, goizean ireki egin baikenuen nahiz eta arratsaldean, jende gutxi zebilen aitzakiarekin, ia denek itxi zuten".



Bileraren beste puntu bat zera izan zen: greba egunean zenbait dendek jasandako kalteak nola ordaindu. Kalte gehienak zerrailetan gertatu ziren, "zotzak sartu eta pegamentua jarri baitziguten". Kaltetutako dendak Murua-mendiarrak gozotegia, Azpeleta elektrozitatea, Artegi eta Mapfre izan ziren. Kasu batzuetan asegurueteek hartu dute kalteen zenbatekoa ordaintzeko ardura "baina aseguruak ordaindu ez dituen gastuak dendari guztien artean ordaintzea erabaki dugu. Kalteen zenbatekoa baino, denon artean ordaintze-

ak suposatzen duen gestu solidarioa benetan aipagarria da".

Merkatariek lehen aldiz bildu eta denon artean hartutako erabaki bati eustearen inportantzia azpimarratu zuten bileran. Aurrerantzean ere, beste gertaera baten aurrean elkartzeko asmoa dutela gaineratu digu merkatarik honek.

Partaidetza handia eta giro polita haur krosean

Ikastolak antolatuta, joan den igande eguerdian egin zen Haur Krosearen 4. edizioa. Goiz eguzkitsua atera zen, aproposa bai lasterkariarentzat bai ikusleentzat. Jende ugari pilatu zen Plaza Handian eta kale bazterretan lasterkarien ahalegina ederki txalotuz.

Partehartzaile guztiek domina bana jaso zuten esfortzuen ondoren eta irabazleek kopa ere bai. Ikastolak eskerriak luzatu nahi dizkie krosa antolatzen lagundu zuten erakunde, elkarte eta pertsoneri bai eta parte hartu zuten neska-mutil guztiei ere.



□ Irabazleak:

- Alba Esnal (1'17")
- Iker Isasi (1'11")
- Mireia Jauregi (1'13")
- Imanol Pérez (1'10")
- Alazne Eskudero (2'23")
- Aitor Arrillaga (2'13")
- Dorleta Aranberri (2'28")
- Andoni Gabilondo (2'17")
- Maria Maguregi (3'46")
- Iban Konde (3'27")
- Ana Etxaniz (3'30")
- David Rodriguez (3'13")
- Ainara Ladron (6'48")
- Iker Martínez (5'06")
- Mireia Huidobro (5'42")
- Iñigo Lariz (4'56")



Ur instalakuntza berria Arregitorren

Arregitorreko 10, 12 eta 14 zenbakietako etxeek arazoak zituzten urarekin. Izan ere, oraindik ere portal hauetara ura iristeko motobonba erabili behar izaten zen eta, halere, ez zen presio nahikoarekin iristen azken pisuetara.

San Roken bonbeo estazioa eraiki eta Basarteko deponitua kendu eta gero, beharrezkotzat ikusten zen Arregitorreko aipatu zenbakietara ura behar bezala iristeko instalakuntza berriak egitea.

Obrak egiteko hiru proposamen jaso ziren Udaletxean: Fontaneria Isidoro Ortega, Ipintza, S.A.L. eta Construcciones Laugas, S.A.L. Hiru hauetatik eskaintzarik merkeena aukeratu zen, Fontaneria Isidoro Ortégarena, hain zuzen eta obren gutxi gora-beherako kostua 2.377.231 pta.koa izan da.

“Fumantxu, Gernikako arbolaren gerizpean” obraren estreinaldia

Izenburu honekin estreinatu zuten hilaren 11n Ekekei antzerki taldekoek euren azken obra. Elgoibarko Izarraren antolakuntzapean, 164 bat lagun izan ziren Herriko Antzokian Ekekei taldeak egin duen laugarren lanaren estreinaldia ikusteko. Ekekeikoek esan digutenez, pozik daude joandako jende kopuruarekin “eta itxura denez, entzun ziren barreen arabera, jendea gustura geratu omen zen”. Estreinaldiaren ostean, hurrengo egunean, hain zuzen, Deban antzeztu zuten obra eta larunbatean, hilak 19, Arrasaten izango dira.



1997-IV-18

● 13 elgoibartarrek odol emaleen zilarrezko garaikurra jasoko dute

Datorren igandean, hilak 27, Eibarren egingo den urteko batzar nagusian 25 alditan odola eman dutenei zilarrezko oroigarria emango zaie. Honako elgoibartar hauek jasoko dute oroigarria: Javier Arregi, Marisol Arakistain, Arrate Alberdi, Eugenio Iriondo, M. Jesus Gabilondo, Juan Agirregomezkorta, Juan Cruz Oteiza, Itziar Etxabe, Fernando Domínguez, Iñaki Elizburu, J. M. Carballo, Jose Mari Astigarraga eta Julian Zubiaurre. Goizeko meza-oren ostean, batzarra eta oroigarri banaketa izango da eta eguerdiko 2:30etan bazkaria Unibertsitate Laboralean.

● Internet ikastaroa Txankakuaren eskutik

Txankakua Elkarteak Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean, Internet-i buruzko ikastaroa antolatu du. Gaiak hauek izango dira: modem baten instalazioa, InfoVía, Internet-era sarrera, Netscape, E-mail eta F.T.P. Ikastaroak 20 orduko iraupena izango du eta 8.000 pta. ordaindu behar dira, modem-aren kostua dohainekoa delarik.

● Mataderoako auto zerbitzua konponduta

Duela astebete gutxi gora-behera BARRENEko galderen atalean mataderoako auto zerbitzua noiz konponduko zuten galdetzen zuen herritar batek. Hirigintza batzordeko buru den Jose Mari Oruesagastik adierazi bezala, “dagoneko garbiketa zerbitzua konponduta dago”. Zerbitzu hau matadero zaharra zegoen tokian kokatua dago. Zerbitzu honen garbiketarako ura eskaintzen du txanpon gutxi batzuen ordez. Xaboa norberak eraman behar izaten du.




Deba ibaiko ahateek kumeak izan dituzte

Azken egunotan herritarren artean hizketagai bihurtu dira Deba ibaian bizi diren ahateak duela pare bat aste kumeak izan baitzituzten. Ibaira begira luze jarduten dutenen esanetan, ahate txoak dozena inguru ziren hasieran baina gaur egun bederatzi baino ez daude. Zenbakiak zenbaki, berri pozgarria da Deba ibaian animaliak euren habia egin dutela ikustea eta denbora piska bat barru ahate kuadrila ederra izango dugula jakitea.

● HBko Jorge Hernando, Agirre zinegotziaren ordezk

Joan den astean esan bezala, Jabi Agirrek HBko zinegotzi izateari utzi egin dio. Bere ordezk Jorge Hernando izango da aurrerantzean, eta legealdia amaitu arte, HBko zinegotzi berria. Hernando aurreko legealdian ere izan zen zinegotzi ongizate gaiaz arduratuz. Pello Mendizabalen hitzetan, "nahi genuke Jorgek Ongizate eta Kultura arloak eramatea, eta Marcos arduratzea hirigintza eta kultu-

raz. Badakigu aurrerantzean ere lan ona egingo duela. Bestalde, eskerrik eman nahi dizkiogu HBren izenean Jabiri egin duen guztia-rengatik".



● PPK hainbat komisitotan kobratzea salatu du

Juan Carlos Abianek hainbat komisiotara joategatik kobratzea salatu zuen. "Kirol Patronatura joategatik bokalek 3.000 pta. kobratzen dute eta lehendakariak 5.000 pta eta Bozermalen Batzordearekin gauza bera. Lehen ez zen kobratzen". PPKoaren ustez ez da zilegi alde batetik Udalak austeritatea azpimarratzea eta, bestetik, "ordezkari garenok adibide izan beharrean ahal dugun guztietan kobratzea".

Bestalde, bonobusari dagokionean "ongizate komisiotan denek oztopoak jarri zituzten Belen Elorzak izan ezik". Abianen asmoa Udaltxearen izenean Euskotren enpresara idatzi bat bidaltzea da, "kontuan izan ditzaten ikasle eta langileak eta bonobusa jar dezaten".

Herriko kaleak izendatzeko erabiltzen diren irizpideak

Duela urte t'ardi inguru hasi ziren IMH pareko lurrak zulatu eta astintzen etxebizitzak eraikitzeko. Dirudienez laster amaituko dute lehen fasea eta horrelako guztietan bezala, oraingoan ere kale berria izendatu beharra dago. Kultura Teknikariak azaldu digunez, aipatu tokia jatorriz Basarte omen zen eta hori da aurrerantzean kaleak izango duen izena.



Basarte izena jarri diote IMHko etxe berrien kaleari.

Kale edo plaza berri bat izendatu edo izenez aldatu beharra izaten den guztietan, Hirigintza saila Kulturarekin harremanetan jarri eta azken honek izaten du izen egokia topatzeko ardura. Blanka Salegi Kultura teknikariak esan digunez, "lehenengo pausoa toki horren jatorrizko izena edo historikoki nolabaiteko izendapenik izan duen jakitea da. Horretarako, herriko historialari eta etnografoekin hitzegtzen dugu. Oraingo honetan Pello Arrietak esan digu zona horrek jatorriz Basarte izena zuela." Halere, Blankaren hitzetan, "beste izen batzuk ere proposatu ziren: Errepublikakalea, Agirre lehendakaria, Mazantinni etab... Baina egokiena Basarte zelakoan, hori onartu zen". Kultura Batzordeak onartu eta gero Hirigintza Batzordera eramaten da.

Leku-Eder

Jausoro (Santa Klarako plaza berria) izendatzekoan "Koldo Lizarralde esandakoa izan zen kontuan. Gaur egun etxebizitzak dauden to-

kian garai batean Jausoro izeneko jauntxoek etxeren bat omen zegoen". Giza Eskubideen plazarri dago-kionean, berriz, norbaitek proposatu eta horrela onartu zen.

Leku-Ederren kasua benetan bitxia da. Izan ere, ez baitago inon erregistratua kalerik izen horrekin, nahiz eta denok horrela izendatu Aita Agirre plazako etxebizitza berriak. Blankak esandakoaren arabera, "hori promotorak jarri zuen izena da baina etxebizitzaren katea berez Trenbide da eta plaza, Aita Agirre. Halere, beharbada plaza horri izen berriren bat jarri beharko diogu".

Herritarren izenak

Pedro Migel Urruzo, Juan Mugerza, Pedro Muruguruza, Iñiguez De Karkizano edo Bernardo Ezenarro kaleak herriko pertsona ospetsuen izenak dira, "ahalegintzen gara pertsonaia ilustreen kasuan kaleak izendatzea, euren omenez". Beste batzuetan baserriak hartzen dira erreferentziatzat: Erretxindi, Arregitorre edo Upai Zaharra kasu.

Badira, mendien izena jasotzen dituen kalean ere, besteak beste, Kalamua eta Morkaiko, biak ere Urasandin.

Askotan gure herriko kaleen hainbat izen ez ditugu ezagutu ere egiten. Errosario, San Bartolome, San Frantzisko edo Santa Anatik ateratzen garen heinean, gero eta ezezagunagoak egiten zaizkigu kaleak. Egunen batean, lasai hartu eta bazterrak ezagutzeari ekin beharko diogu.

Non daude kale hauek?

- ▶ **Morkaiko:** Urasandin
- ▶ **Kalamua:** Urasandin
- ▶ **Deba:** Andonegitarren etxean hasi eta Lerunera bitartean (errepidea)
- ▶ **Autonomia:** Olasotik Sigmako zubirainoko errepidea
- ▶ **Jausoro:** Santa Klaran
- ▶ **Arregitorre:** San Roken
- ▶ **Erretxindi:** San Roken
- ▶ **Upai Zaharra:** Hermimios tabernako kalea
- ▶ **Artekale:** Banco Guipuzcoanoko kalezuloa

Marcos Miguel Etxanizen aita Urruzuno bailarako Antxusietako Goikoa baserrian jaio zen. Oso gazte zela, Arjentinara emigratu zuen eta bertan geratu zen bizitzen. Ezkondu eta bi seme-alaba izan zituen. Horietako bat da Marcos Miguel Etxaniz. Marcosek bizitza osoan entzun izan du aitaren familia eta herriaz hitzegiten eta orain, 53 urte dituela, izan du lehen aldiz aukera Elgoibarrera etortzeko. Irma Baldomirrekin izan da, emaztearekin.

MARCOS ETXANIZ IRMA BALDOMIR

“Aitaren baserria ezagutzera etorri gara Arjentinatik”

– Anaiaren atzetik joan zen aita Arjentinara.

Marcos: Bai, eta gero aita zenak bere anaia txikia eraman zuen. Zerbezeria edo soderia bat ireki zuten bertan. Gauza txiki batekin hasi eta poliki-poliki gero eta gehiago joan zen handitzen enpresa.

– Coca-Colaren antzeko edariren bat ere asmatu zuten, ez?

Marcos: Bai, “Bidu” izeneko edaria zen eta botila bera jatorrizko Coca-Colaren antzekoa zen. Garai batean asko saldu zen Arjentinan. Gogoan daukat nola ume nintzanean edariak prestatzen zituzten tokira joaten nintzen. Han, edariei gasa emateko oxigeno oso hotza erabiltzen zen eta botila txorro azpian jartzea gustatzen zitzaidan, hotz-hotza zegoenean edateko.

– Irma, zure aitona Galiziakoa omen zen.

Irma: Bai, baina guraso-

ak Arjentinakoak. Gainera, nik ez daukat Galiziako familiaren berri. Harremana galdu egin zen eta gaur egun ez dakit ez norbait bizi den, ez eta non bizi den ere.

– Euskaldunen odola daramazu Marcos.

Marcos: Bai. Egia da ni Arjentinan jaio nintzela, bertan naizela bizi, Arjentinako arazoak nire arazoak dira... Baina nire barruan euskaldunen odola daramat eta hori igartzen da. Esan nahi dut, nahiz eta heziketa eta kulturaz arjentinarra izan, geneek ere badutela eraginik, eta nik beti uste izan dut euskaldunon izaera mantentzen dudala.

– Aurten etorri zarete lehenengoz Elgoibarrera.

Marcos: Hala da. Orain arte arazo desberdinengatik ezinezkoa izan zaigu. Baina nik beti izan dut ilusioa aita zenaren baserria ezagutzeko, Antxusietako Goikoa. Eta ikaragarri gustatu zait, bai base-

ria eta bai familia.

– Giro polita, beraz.

Marcos: Sinestezina. Hitzez ezin da azaldu zer nolako jendearekin egin dugun topo. Laster familia osoarekin afari bat egitekotan gara. Uste dut lehen aldia izango dela urte askoan guztiak elkartuko garela, 40 bat edo. Familiako asko ia harremanik izan ez eta, gu etorri garenaz, berriz elkartuko dira. Oso polita da.

Irma: Azken finean, nahiz eta familiakoak izan, ezezagunak gara eurentzat eta, halere, betidanik ezagutuko bagintuzte bezala tratatu gaituzte.

– Badakit, gainera, zerbait bitxia gertatu zaizula.

Marcos: Antxusietan nagoenean, bertako pasiloak, logelak lehendik ere ezagutzen ditudala iruditzen zait, lehen ere bertan izan banintz bezala. Eta badago familiako bat bere ahotsa izugarri ezaguna egiten zaidana, betidanik barruan eraman izan banu bezala.

– Oroitzapen ona eramanago duzue, beraz.

Marcos: Dударik gabe. Lehen kontuak ezagutzen ginituen, orain oroitzapen horiek aurpegiak dituzte, espazioa, ahots konkretuak...

Irma: Gure semea ere desiatzen dago etortzeko. Familiakoentzat zinta bat grabatu zuen eta egunen batean etorriko dela agintzen zien.

– Euskaraz ba al dakizu zerbait?

Marcos: Gosez ez hiltzeko beste: ogia, gazta eta ardoa. Gure etxean euskaraz hitzegiten zuten gu despistatzea nahi zutenean, zertaz ari ziren guk ez ulertzea nahi zutenean. Ez dut sekula ikasi.

BESTEAK ESANA

“Aitxari berbia eman zion baserrixa ezagutzera etorriko zala. Hitzari eutsi dio euskaldun jator bezala.”
JOSE ANTONIO OSORO



Jose Kruzelegi eta Eusebia Arrieta

"Erromerixa politxak eitxen ditxugu Benidorm-en"

20 urte daramate Benidorm-era joaten. Jose Kruzelegik 75 urte ditu eta Eusebia Arrietak 76. Bikote elgoibartar hau osasun kontuengatik hasi zen Alicanteko hirira joaten eta, konturatu gabe, uste baino urte gehiago daramate urteroko egonaldiarekin. Esan digutenez, gainera, ondo baino hobeto etorri omen zaie.

— 20 urte. Ez da gutxi!

Jose: Ez, egixa da. Oin dala 20 urte medikuak esan zian nahi ez banaban sila de ruedasian geratzia, toki siku batera jun biharra nakala. Eta holaxe, Benidorm-era jutia erabaki genduan eta gaur arte.

— Klima ona, bizitza lasaia...

Eusebi: Ez dakitx ze pasatzen dan, dana izango da seguruena. Goizian jaiki eta ikusten dezu dana, zerua eta itsasua urdin-urdina, hango trankilidadia... Lelengo urtian 15 egunerako jun ginan baina hain ondo ein zigun beste 15 egun luzatu gendula.

— Etxe batean egoten zarete, ez?

Jose: Egonda gaude bi bider hotelian baina ostantzian beti etxe bat alkilatzen dou. Hotelak bentajak badakaz, ez oherik ein, ez jatekorik preparau.. Baina, etxian ere gustura, zure kontura.

— Honez gero ezagunak izango zarete.

Eusebi: Danian, bai dendetan, kamizerixan... Gainera, kuadrilia ere badakau. Gu bezela Eibartik eta beste asko jutun dia eta danak batera ibiltzen gera.

— Zein izaten da plana?

Jose: Goizian jaiki, armozau eta andria plaiara jutun dan bitxartian nik mendira eitxen dot bueltia, Madarixan alturakua edo izango da. Gero bazkaldu eta beste bi orduz edo etxe gaineko terrazan egoten gera, gero karta jokura, afaldu...

— Eta dantzara?

Eusebi: Ez gera jutun. Nahixao dou etxian trankil geratzia, telebisio piskat ikusi eta... Behin edo behin jun izan naiz lagunekin dantzara baina gitxitxan.

— Halere, San Isidro eguna beti ospatzen duzue.

Jose: Bai, a maiatzan 15a. Kuadrila haundixa elkartzen gera terrazan. Txanbolinek jatekua preparatzen dau eta nik soinua etarutzen dot, beste batek panderua... Erromerixa politxa eitxen dou, danak

dantzan eta kantuan.

— Saloura ere joan izan zarete noiz edo noiz.

Eusebi: Bai baina ez jakun asko gustau. Umedade gehixo dau Benidorm-en baino. Gu gusturo ibiltzen gera Benidorm-en.

— Onik egin dizue, beraz.

Jose: Bai. Neri medikuak esan zian ahal naban guztietan hondar sikuan gainian buruz behera etzateko eta bizkarrian eguzkixak emateko. Baitxa, hondar sikuan zuluua ein eta belauak sartuta egoteko. Ezin laike sinistu zelako ondo ein dian neri!

— Gaztetuta?

Eusebi: Horixe baietz! Igual kanpotik ez, eguzkixakin zimurrak urtetzen dia eta. Baina barrutik askoz gartzio sentitzen zera, arino danerako. Eta hori da balixo dabana.



Soinuarekin, Jose eta bere eskuman, Eusebia, makurtuta.

GAZTAROKO OROITZAPENAK

Tomas Cano eta Isabel Ruiz

"Ezkondu eta 5 urte pasa genituen banatuta"

60 urte! Ez da, ez, zenbaki makala ezkondu horrenbeste urtez irau-teko. 78 urte dituen Isabel Ruiz eta 82ko Tomas Canok martxoaren 25ean bete zituzten 60 urteak eta oraindik ere beste asko ospatzea espero dute. Hiru alaba, bi iloba eta lau biloba dituzte. Kontua da, Santander aldeko bikote honek ezkonberritan dexente istorio pasa behar izan zituela gerra zela eta. Horiek guztiak kontatzera etorri ziaizkigu BARREnera.

— 1937an ezkondu zineten, zibilez.

Isabel: Bai, hala da. Gerra garaia zen eta gorriak sartu zirenez, apaiz guztiak alde egin zuten, ihesi. Hortaz, gure herrian ez zegoen apaizik eta nola ezkondu nahi genuen, momentuz zibiliez ezkontzea erabaki genuen.

— Halere, ezkondu eta berehala banatu beharra izan zenuten.

Tomás: Bai, gerra garaia zen eta joan beharra izan nuen Asturiasera lehenik, Frantziara, Kataluniara, Murtziaara...

— Urtebetez senarra hilda zenuela uste izan zenuen.

Isabel: Hala da, bai. Ezkondu eta hiru hilabetera joan zen eta urtebetez bere berri izan gabe egon nintzen.

Bonbardaketa asko izaten ziren eta haietakoren batean hil zela uste nuen.

Pentsa, alaba ere jaio zitzaigun eta arazoak izan nituen bataiatzeko, apaizak, elizaz ezkondu ez nengoela eta ume hark aitarik ez zuela esaten baitzuen.

Horregatik, ez bataiatzea erabaki nuen aita etorri arte.

— Gero, Tomas, zuk apaiz hari bizia salbatu zenion, ez?

Tomás: Bai, kasualitatez izan zen. Bonbardaketa bat zegoen eta garai hartan apaizak ere Santanderetik ihes egin behar izan zuen. Ezagutu eta nirekin eraman nuen baina mesedez eskatu zidan ez esateko inori gertatutakoaz ezer. Gerra amaitu zenean, preso nengoela, apaizari esker atera ninduten.

— Halere, eskutitz eder bat jaso zenuen Isabel.

Isabel: Bai. Hura poza! Pentsa, senarra hilda zegoela sinestu eta derrepentean, ia urte t'erdira eskutitza iritsi zitzaidan.

Oraindik gordeta daukat.

— Bi urte, beraz, banatuta.

Isabel: Bai. Gure lehen alaba bi urterekin ezagutu zuen Tomásék. Gerra amaitu eta etorri zenean ezkondu ginen elizaz. — Eta orduan etorri zineten Elgoibarrera.

Tomás: Bai, lehengusuak genituen eta.



— Baina arazoak ez ziren amaitu.

Isabel: Bai zera! Orduan ere, gerra amaitu eta gobernu berria zegoenez, Tomásék soldadutza egin behar zuela esan zuten. Berriz ere senarrik gabe geratu nintzen bi urtez, Afrikan izan baitzen soldadutzan. Senarrik gabe eta bi alaba nituela itzuli nintzen Santanderrera.


— Ezkonberritako urteak gogorrrak, ez?

Tomás: Oso gogorrrak. Umetatik elkar ezagutzen genuen. Isabelek 18 urte zituela ezkondu ginen eta, bat batean, gerra medio, banatu beharra izan genuen. Oso gogorra izan zen. — Halere, pozik egon zaitezke 60 urte elkarrekin ezkondu bete dituzuelako.

Isabel: Hori egia da. Guk ere izan ditugu bikote guztiak bezala eztabaidatxoak baina sekula ez dira egun bat baino gehiagoz luzatu. Ondo asmatu dugu bata bestea onartzen. Urte asko, gauza txar eta on asko pasa ditugu elkarrekin.


— Ea platinozko eztaiak betetzen dituzuen!

Tomás: Askotxo dira horiek. 15 urte falta dira oraindik. Hala balitz Guines liburuan sartzeko moduan egongo ginake! Hori bai, 16 urte daramatzat jubilatuta eta orain bezala ez naiz sekula bizi izan. Oraingo lasaitasuna ez nuke ezerrengatik aldatuko.




Egiten al duzu kirolik?

Udaberrian gaude. Eguraldiak ere ez dirudi txarrera egiteko asmorik duenik. Udara, oporrak, hondartza begibistan ditugu dagoeneko eta eguzkiarekin batera ikusten dira, baita ere, batean eta bestean txandala jantzi eta kirola egitera ateratzen diren pertsonak. Urteek aurrera egin ahala, ez dago zertan ariketa fisikoa egiteari utzi beharrik. Are gehiago, adituen esanetan, guztientzat da onuragarria kirolen bat egitea. Nork bere gaitasunaren arabera egokitua beti ere.



Gustavo Conde

Erori egin nintzen eta oinean min hartu nuen, orduanik ez nabil lehen bezain arin. Halere, medikuek uste zutena baino hobeto nabil, hasieran apenas ibiliko nintzela esaten zidaten eta. Nik ia urte osoa Torreveijan pasatzen dut. Han hondartza asko dago eta dena da laua. Nik egun osoa pasiaran ematen dut, ezin naiz geldi egon, eta hori da onena.



Elias Liz

Artrosia eta mokorra nahiko geizki ditut eta ezin dut nahi beste egin. Halere, egunero pasiarra luze bat ematen dut. Batzuetan beste 12-14 km. inguruko pasiarak ematen ditut egunero, pare bat ordu edo, eta arratsaldetan bizikleta estatikoan ibiltzen naiz, medikuek aginduta.



Enrike Loiola

Ibili eitzen naiz ni asko. Egunero edo ixa egunero, juten naiz mendira, Madarixara, Xoxotera, Erlora... Bidez bide dana, kaletik hasitxa. Bastante osasuntsu mantentzen naiz eta gustatzen jata mendixan ibiltzia. Gaztetan pilotan ibiltzen nitzan, nahiz eta ez nakan hainbeste denbora baina oin, nahi beste dakatenez...




Maria Sainz

Ahal dudan guztietan, arratsaldeko 5etan etxetik ateratzen naiz eta San Lorentzo aldera lehenengo, Mintxetara gero, batera eta bestera oinez joan eta gaueko 9ak arte ez naiz bueltatzen. 6 km. inguru egingo ditut ateratzen naizen guztietan. Eguraldi txarrarekin ez, medikuek esan didatelako hotza eta hezetasuna ez zaizkidala gehiegi komeni.



Julia Iriondo

Bai, ixa egunero juten naiz San Antolinera edo... pasiaran. Denboria ere euki ein bihar da eta etxian askotan egoten da zereina. Ni baserrikua naiz eta gaztetan segan zala, belarra batu bihar zala, ganaua zaindu... Baserriko lana bai dala deportia eitxia. Nahikua eindakua naiz ni gaztetan!



Nor ote da?

Azken gerrako kontuak. Gure pertsonaia mutil kozkor bat zelarik, bere aita “gorriekin” joan zen aurrera. Ama hemen, Elgoibarren, geratu zen hiru umetxorekin.

“Nazionalak” sartu zirenean, mendeku bezala, ama ere “gorrieta- ra” bidali zuten. Gure pertsonaia, amari maleta eramateko aitzakian, trenbidez Maltzagara bidean, gorriengana pasatzen saiatu zen, soldaduek alto eman zioten arte.

Ama Durangoko bonbaketan hil zen azkenean eta aitak Frantziara egin behar izan zuen alde. Osaba bat afusilatu zioten. Beste osaba bat Madrilgo desterruan hil zen. Hiru anai-arrebak hemen geratu ziren eta aita noizbait Frantziatik itzuli eta koxkortzen ari zirenean, araba meninjitisak jota hil zen. Tristeia oso horrera arteko balantzea, baina ez zen horregatik gure mutila baretu.

Donibanen, Jose Antonio Agirre lehendakariarekin elkartu zen, bere asmo eta ekintzak komentatzeko.

Luistarren Kongregazioko lehendakaria izan zen, gaur Eroski den hori, lehen “Kooperativa la Elgoibarresa” zen eta berak jarri zuen martxan. Beste bi enpresa muntatzen ere, bera izan zen oinarri nagusia. Udaletxean zinegotzi ere izandakoa da. Eta abar, eta abar.

Nor ote da Elgoibarren jaio, hazi eta bizi den pertsonaia hau? Erantzuna baldin badakizu, bidali BARREnera

**Testua: Felix Etxeberria
“Parapan”**

Kontxa Etxaniz Urruzuno

(1908-1968)




- 1908ko abenduaren 8an jaio zen Elgoibarren. 9 anai-arrebetatik bigarrena zen.
- Gaztetan Madalako monjekin ikasi ondoren Erasmo jaunaren eskolan ibili zen.
- Gurasoek gozokiak, pastelak, txokolatea etab.eko denda zuten gaur egun Osoro erlojudenda dagoen tokian. Entzute handiko denda zen herrian baita erbestean ere. Dendan lanean aritu zen, familiari lagunduz.
- Bere aita, Juanito, famatua izan zen. Raketistak ateratzen zituen Espainiako eta erbesteko frontoietan.
- Herriko telefonista buru izan zen Kontxa hainbat urtean. Victor Barrutiarekin ezkondu eta 3 seme-alaba izan zituzten. Senarrak “Fundiciones Alba” sortu eta bertako gerentea izan zen urte askoan.
- Kontxaren familia guztia musika zaletu amorratua zen. Anaiak bibolina jotzen zuten.
- Lizarran finka erosi eta han pasatzen zituen denboraldi batzuk, elgoibartar batzuen bisita ere izaten zuelarik.
- Emakume alaia zen, irripartsua eta sinismen handikoa.
- Irakurtzea gustatzen zitzaion, eta musika izugarri zuen gogoko.
- Ohiko bizimodu ona zeraman familia zuen. Zoritxarrak astindu zuen 59 urterekin auto istripuz hil zenean 1968ko azaroaren 11n.

Juanito Gorostiza

Nor ote da?

Joan den asteko “Nor ote da?” lehiaketaren erantzuna
LAZARO MUGURUZA da.



I. URTEURRENA

1996ko apirilaren 7an hil zen **FRANCISCO LORENZO**

OLIVEIRAren oroimenez, **URTEMEZA** izango da larunbatean, hilak 19, arratsaldeko 8:30etan Madalako elizan.

Joango zaretenoi eskerrak alde zurretik.





Itzolan, gerra garaian aterako erretratu hau Agapita Soraizek laga digu. 1937ko uztailaren 7koa da. Benetan argazki bitxia da. Batetik, mojak agertzen dira, euren buruko berezi horiekin. Bestetik, kamilleroak, garbitasuneko langileak, erizainak, militarrek etab.

Denen izenak jakiterik ez dagoenez hona

hemen Agapitak aipatu dituenak:

Atzean ezkerretik hasita: **Carmen Arrillaga, Sor Isabel, Manolita Zubizarreta, Sor Mariana eta Florita Arrillaga.**

Hurrengo ilaretan: **Beatriz Larrañaga, Beatriz Aizpiri, Ordolina González, Benegas, Joaquin Santa María, La Calle, Ines Ezenarro, Don Tomás Redin, Antonio Arrillaga, Sor Carmen, Sor Maria Roka eta Sor Laura Bastera.** Umeak **Alejandro Lazkano eta Satur Landa** dira.

LASA
JATETXEA



OZAETA JAUREGIA
(Bergarako
hegoaldeko irteera)

MONUMENTU
NAZIONALA



Tel: 76 10 55 **BERGARA**

EZKONTZETARAKO
JANGELA
ZABAL eta APROPOSA

PARKING PRIBATUA
TERRAZA
eta LORATEGIA

Aste honetako
DEGUSTAZIO MENUA

Usakume patea ahate gibelarekin



Honddo pastela berroen saltsarekin



LASArako legatz solomoak



Esne-ixekorren etxeko gisatua



Sorbeteak aukeran, 3. urteko ardoa,
kafea + Petit Suis-a



4.900 pta. + BEZ (%7)

“Ahal dudan arte egingo dut gimnasia”



Benita Calleja

- **Adina:** 83
- **Nora joango zinateke oporretara?** Hegoaldera
- **Lore bat:** Larrosa
- **Zenbat txandal dituzu?** Bi
- **Elgoibarko lekurik politena?** Eliza nola utzi duten asko gustatzen zait

– **3. adineko gimnasiako nagusia omen zara.** - Bai, nik 83 urte ditut, urrian 84 egiteko. Taldean badaude 75etik 79 urtera bitartekoak. Gehienak adin horretan dabilta.

– **Noiz hasi zinen gimnasia?** - Duela bost bat urte hasi nintzen eta ez dut ia sekula kale egiten. Esaten didate bai, demaseko meritua dudala. Pentsa ezazu, Sigman bizi naiz eta 20-25 minutu behar izaten ditut Kiroldegira joateko. Gero ordubeteko gimnasia eta berriro beste 20 bat minutu etxera bueltatzeko. Euria, hotza ala eguzkia egin, beti joaten naiz.

– **Nolatan hasi zinen?** - Jubilatuetara joaten naiz noizbehinka, igandetan batez ere, eta bertan komentatu zuten gimnasiaren kontua. Lagun bat eta biok animatu ginen eta gaur arte. Orain 30 bat gaude taldean eta gutaz aparte, beste talde bat ere badago. Astelehen, asteazken eta ostiraletan izaten dugu klasea.

– **Zer da gimnasia egiten duzue?** - Denetik. Besoak mugitu, belau-nak, hatzamarrak, eskumuturrak... hankekin koordinazio arrietak etab. Markurtzeko arrietak ere egiten ditugu, lepoko arrietak... eta musika ipini eta dantza egin. Nekatu ez baina izerdia, izugarri botatzen dugu. Nik belau-nak eta lepoa ditut kaxkarren, eskilarak igo eta jaistea kostatzen zait gehien baina ibili, nahi adina egiten dut. Etxeko lan guz-

tiak ere nik egiten ditut, bazkaria prestatu, kortinak kendu eta garbitu, plantxa... dena. Gimnasia egiten dudanetik moko-rrako mina desagertu egin zait

– **Gutxien atsegin duzuna?** - Koltxoneta gainean etzan eta abdominalak egitea. Gogorrena da eta gerriarekin kontuz ibili behar da minik ez hartzeko. Honez gain, memoria lantzeko arrietak ere egiten ditugu.

– **Monitorearekin oso gustura omen zaudete.** - Bai, oso jatorra da. Denok berdin tratatzen gaitu eta beti esaten digu norberak ahal duena egin behar duela. Gainera, urte amaieran oparixko bat egiten diogu eta berak ere merien-datxoa eskaintzen digu.

– **Beste arriekarik egiten duzu?** - Gimnasia ez dugun egunetan, senarra eta biok pasiaran joaten gara.

– **Horren ondo mantentzeko sekreturik?** - Bizitza sana eta egunero lan egin. Osasunik ez zait falta Jainkoari eskerrak. Sekula katarro bat hartzen ez dutenetakoa naiz.

– **Gaztetan kirolari izateko aukera eduki izan bazenu...** - Gaztetan oso korrikalari ona nintzen. Antxitxiketan has-ten ginenean lagunek ez ninduten sekula harrapatzen. Gaur egun izan balitz, al-tetismoa egitea gustatuko litzaidake.

– **Noiz arte gimnasia?** - Ahal du-dan arte. Beste bi urtez gutxienez joate-ko asmoa dut.

ESKOLARTEKO JOKOAK

EMAITZAK (Apirilak 12, 19. jardunaldia)

ARETO FUTBOLA

- **Infantil mutilak** ■
Ikas Urdin 3 - Pilar Inter 2
Ikas Txuri 9 - Ikas Amantis 4
- **Infantil neskak** ■
Ikas Gorri 4 - Bremlins 5

SASKIBALOIA

- **Benjamin mutilak** ■
Mendaro A2 2 - Pilar Flash 8
Pilar Lakasitos 2 - Mendaro A1 8
Ikas Zirt 12 - Ikas Marrazo 4
Ikas Txut 20 - Ikas Kirol 2
- **Benjamin neskak** ■
Urasandi 10 - Ikas Izar 2
Pilar Kas 8 - Ikas Izurde 0
Pilar Usoak 24 - Ikas Zart 6

ESKUBALOIA

- **Alebin mutilak** ■
Ikas Otsokoak 23 - Pilar All Star 4
Mendaro D 22 - Herri Boomerang 1
Pilar Ajax 7 - Pilar S. Germain 5
- **Alebin neskak** ■
Ikas Laino 1 - Ikas Beder 19
Herri Women's 2 - Pilar Mix 6
Mendaro C 2 - Ikas Txingor 13

AGENDA (Apirilak 19, larunbata)

ARETO FUTBOLA

- **Infantil mut. (Herri Eskolan)** ■
9:45 Ikas Urdin - Ikas Pirri
12:00 Ikas Amantis - Herri Milan
- **Infantil nesk. (Herri Eskolan)** ■
11:15 Ikas Beltz - Pilar Manchester
10:30 Ikas Gorri - Pilar Girls

SASKIBALOIA

- **Ben. mut. (Herri Eskolan)** ■
9:30 Ikas Kirol - Ikas Marrazo
10:00 Ikas Txut - Mendaro A1
10:30 Mendaro A2 - Pilar Lakasitos
11:00 Ikas Zirt - Pilar Flash
- **Ben. nesk. (Herri Eskolan)** ■
11:30 Pilar Kas - Mendaro B
12:00 Ikas Zart - Ikas Izurde
12:30 Pilar Usoak - Ikas IZar

ESKUBALOIA

- **Alebin mut. (Kiroldegian)** ■
9:00 Pilar S. Germain - Ikas Axelkoak

- 9:45 Pilar Ajax - Ikas Ilargi
10:30 Mendaro D - Ikas Eguzki
11:15 Herri Boomerang - Pilar All Star
- **Alebin neskak (Ikastolan)** ■
9:45 Ikas Laino - Herri Women's
10:30 Pilar Mix - Ikas Beder
11:15 Pilar Star Girls - Ikas Trumoi
12:00 Ikas Sei - Ikas Txingor

(Apirilak 22, asteartea)

ESKUBALOIA

- **Aleb. nes. (Ikastolan)** ■
19:00 Ikas Sei - Ikas Txingor

ARETO FUTBOLA

- **Infantil. mut. (Herri Eskolan)** ■
17:00 Ikas Txuri - Pilar Boys
18:00 Ipuerterreak - Pilar Inter
- **Infantil. neskak (Herri Eskolan)** ■
19:00 Gremlins - PeDa Insti

Eskubaloiko taldeek lehen eta bigarren postuetan amaitu dute Liga Kadeteetako zazpi jokalaria aurreselekzionatuak

Elgoibarko Kirol Elkarteko eskubaloiko taldeko zazpi jokalaria Gipuzkoako selekzioa osatzeko egiten den aurreselekzioarako hautatu zituzten duela aste batzuek. Lehen deialdian zazpi jokalaria izan ziren baina gainontzeko deialdiara bost bakarrik deitu zituzten. Aurreselekzio honetatik Gipuzkoako selekzioa osatuko duten jokalaria aterako dira, 16-20 inguru.

Jokalariok kadete mailakoak dira, Josean Hidalgo entrenatzaile dutelarik. Ez da harritzekoa hainbeste izatea Elgoibarko kadeteen ekipo honetatik hautatu dituztenak aurten Euskal Ligara igotzea lortu baitute. Eskubaloiko Elkarteko jubenil mutilen taldea ere Euskal Ligara



Atzetik hasita, Aierdi, Ander Goikoetxea, Julen Hernández, Kepa Mendikute, Unai Arrieta, Janathan Martin eta Josu Perea.

igo da. Ligako partiduak amaitu berri dituzte eta emaitzak ezin hobekak izan dira. Kadete mutilak txapelak, jubenil mutilak

eta jubenil neskak txapelak, jubenil neskak txapelak zortzigarren postuan amaitu dute. Orain kopako partiduak jokatu dituzte.

Udako kirol eskola sortu da Deba bailaran

Deba bailarako Udala Euskara eta Kirol zerbitzuek Udala Kirol Eskola martxan jartzeko asmoa dute aurtengo udan. Egitasmoa Kirola Euskaraz programaren barruan kokatzen da, kirolean euskaraz aritzeko sortua. Udala Kirol Eskolaren helburua entrenatzaile, irakasle eta kirolarien prestakuntza hobetzea eta euskararekiko motibazioa areagotzea da. Astebetez, Euskal Herriko kirolariak euskararen eta kirolaren inguruan bizi izateko aukera izango dute, uztailearen 14tik 18ra bitartean zuzen. Udala Kirol Eskolan bi sail landuko dira: eskolarteko monitore eta teknikariari zuzendutako erreziklaia saila, kirolarietako stagea eta teknifikazio ikastaroa atletismoa, pilota, eskubaloia eta futbole-

an. Eskolak Eibarren izango du egoitza eta ikastaroak Arrsatzen, Bergaran eta Mutrikun emango dira. Elgoibarren ekintza osagarri batzuk egingo dira, besteak beste, filmeren baten emanaldia. Izena emateko Kiroldegira deitu, 74 44 15.

Kirol materiala sortzeko beka

Kirola Euskaraz programak bi beka emango ditu aurten kirol materiala euskaraz sortzeko. Bata, igeriketa, karatea eta judoari buruzko fitxa didaktikoak sortzeko izango da eta bestea, Hezkuntza Fisikoko lizentziaturan dauden ikasgai amankomunak lantzeko. Bekei buruzko informazio gehiago eskuratzeko Kiroldegira zuzendu (74 44 15).

EMAITZAK

Futbola

Haundi 2 - Arratia 0
 Elgoibar 3 - Baskonia 5 (**1. erreg.**)
 Elgoibar 2 - R. Sociedad 3 (**Kad.**)
 Beti Sutan 3 - Pedrusko 3 (**2. erreg.**)
 Real UniOn 3 - Elgoibar 0 (**Oho. inf.**)
 Alde Zaharra 0 - Elgoibar 3 (**2. jub.**)
 Intxaurren 0 - Elgoibar 1 (**Neskak**)
 Añorga 1 - Elgoibar 2 (**Oho. jub.**)

Eskubaloia

Pneumax Elg. 33 - Bergara 11
 (**Kad. mut.**)
 Unceta Elg. 49 - Zestoa 1
 (**Kad. nes.**)
 Pagoaga Elg. 12 - Urnieta 12
 (**Jub. nes.**)

Saskibaloia

Elgoibar 64 - Goierri B 40

Areto Futbola

Caf Buss 3 - Elgoibar 3 (**Auton.**)
 C. Boulevard 3 - Elgoibar 1 (**1. maila**)

AGENDA

Futbola, Mintxetan

Larunbata, 19
13:30 Gazteak - Aldapetarrak (**Jub.**)
16:30 Elgoibar - Munibe (**Oho. jub.**)
18:15 Elgoibar - Antoniano (**Neskak**)

Igandea, 20

9:00 Urki B - Hondarribia (**Jub.**)
10:45 Eibar urko - Lagun Onak (**Oho. jub.**)
12:30 S.D. Eibar - Aretxabaleta (**Erreg.**)
14:15 S.D. Eibar - S. Tomas (**Oho. kad.**)
16:00 Elgoibar - S. Tomas (**Inf.**)
17:30 Gazteak - Beti Sutan (**Erreg.**)

Atletismoa, Mintxetan

Larunbata, 19
10:30 Eskolarteko atletismoa

Areto Futbola, Kiroldegian

Ostirala, 18
22:10 Elgoibar - Antxeta (**1 maila**)
23:10 Elgoibar - Ondarre (**Auton.**)

Maiatzaren 23tik 25era ospatuko dira Trinitateak

Tanborradarako martxa berria estreinatuko da 24 gauean

Goiz xamar datoz aurten Trinitate jaiak. Egutegiaren gora-beherak direla eta, maiatzaren 23, 24 eta 25 dira Trinitate jaiak ospatzeko izendatutako egunak. Urtero bezala Udalak Trinitate jaietako ekintzak antolatzeari ekin dio eta dagoeneko eman du ezagutzera zein ekitaldi izango diren.

Iaz egin zen lehen aldiz San Anton eguneko artisau feria Trinitate jaietan. Data hobea dela-eta erabaki zuten Udalak Trinitateetara aldatzea aipatu feria. Aurten 30 bat artisau etorriko dira Elgoibarrera nor bere jarduera erakustera. Leku-Ederreko plazan kokatuko dira postu guztiak, eta ez Plaza Handian. Aurtengo jaiak 3 milioko aukerontua dute.

“Beti Elgoibar”

Maiatzaren 24an, larunbata, gaueko 11etan Plaza Handitik San Bartolome kalean zehar abiatuko da Tanborrada. Dagoeneko tanborrada antolatzeko bilerarako deialdia egin da eta orain kuadrilak animatzea baino ez da falta. Antolatzailleek komentatu digutenez, haurrek ere izango dute euren tanborrada.

Nagusien tanborradan Txomin Mujika elgoibartarrak konposatutako “Be-

ti Elgoibar” izeneko pieza entzungo da lehen aldiz. Mujikak tanborradarako pentsatuz egin du musika obra hori, “Tatiago”, “Polka”, “Donostiako martxa” eta beste pieza klasiko batzuen artean maiatzaren 24ko gauean estraineko entzuteko aukera izango dena.

Musika ekitaldia

Tanborradaz aparte, zapatu gauean Gelatxo taldearekin erromeria izango da Plaza Handian. Trinitate jaietako musika saiorik inportanteena, berriz, Apple Golden Quartet talde ezagunaren kontzertua izango da Herriko Antzokian. Igande gauerako aurikusita dagoen arren, Udaletxetik esan digutenez, ekitaldi guztiak behin-behinekoak dira eta aldaketak egon daitezke.

Tiobiboak

Udal Kultur Zerbitzutik esan digutenez, aurten iaz baino tiobibo eta barraka gehiago egongo dira. Beste urte batzuetan hileko azken feriarekin tokatu izan dira Trinitate jaiak eta arrazoi



Txomin Mujikaren martxa estreinatuko du tanborradak.

honegatik Kultur Etxe inguruan kokatu behar izan dira barrakak, kopurua oso mugatua izan delarik. Aurten Aita Agirre plazan kokatuko dira: autodetxokeak eta beste hiru barraka.

San Bartolome jaiak antolatzeko deialdia

Aurten ez da Trinitate jaiak antolatzeko deialdirik egin herritarren artean. Honen arrazoia iaz gertatu zen koordinazio eza izan da. Hala ere, San Bartolome jaien egitaraua diseinatzeko herritarren kolaborazioak izango du lekurik. Kultur teknikariak adierazi bezala, “laister batean bilerarako deialdia plazaratuko da”.

AUTOBUS

6. EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA

Apirilaren 27an, Donostian

Autobusak: Goizeko 10etatik KING?KONG e?



IZENA EMATEKO:

- ¥ Herri Eskola
- ¥ Herri Institutua
- ¥ Mendaroko Ikastola

PREZIOAK:

- ¥ 10etik 12 urtera: DOAN
- ¥ 12tik 18 urtera: 500

ANTOLATZAILLEAK:

- Gurasoen Elkartea

LAGUNTZAILLEAK:



K A F E

SARRERA
500 pta.

Kafea, pastelak, kopa
eta IKUSKIZUNA!

Apirilak 25, ostirala

Gaueko 10:30etan

Kultur Etxeko sotoan


Silbia
Hernand
ez

Pianojolea



Tejero
anaiak

Oboea eta
zeharkako
xirula



Duo
Plaentxi

Abesti
mexikarrekin



Antolatzailea:
ELGOIBARKO IZARRA



Babesleak:

XIGORTZE KOMERTZIALA
Kafe banatzailea

SALEGI
Gozotegia

AITZBIZKAR
Edari banatzailea

KARKIZANO
Mertzeria

Leire,
Oihana
eta
Elena

Mendaroko
txiskolariak



MO
Karmen
Elorza eta
Jose
Membriller
a
Artelanak
ikusgai eta
salgai



INTERESEKO

OSASUNA

Anbulategia:
 Larrialdiak 461111
 Txanda hartzeko 743354
 Planning-a 742950
 Alkoholiko Anonimoak 740385
 D.Y.A (anbulantzia) 464622
 Gurutze Gorria 743864
 Mendaroko Ospitalea 756264
 Odol Emaileak 743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak 740442
 PESA (Eibar) 902 10 12 10
 Taxi geltokia 740898

UDALA

Euskara Zerbitzua 744366
 Udal Kirol Patronatua 744415
 Kultura Zerbitzua 742158
 Mendaroko Udala 756100
 Ongizate zerbitzua 741008
 Udaletxea 741050
 Udaltzaingoa 741394

BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra 741626
 Kirolegia 744415
 Kontsumo Bulegoa 743088
 Liburutegia 743525
 Musika Eskola 742145
 Mintxeta 744315
 Parrokia 740842
 Postetxea 741547

HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza 740296
 Zaharren Biltokia 740526

IKASTETXEAK

Haur Eskola 74 21 41
 Herri Eskola 74 08 79
 I.M.H. 74 41 32
 Herri Institutua
 Arreiturre 74 02 67
 Ezenarro (Meka) 74 44 80
 Ikastola 74 44 41
 L.H.I. 74 44 80
 Pilar Ikastetxea 74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN 74 41 12
 El Diario Vasco 74 40 73
 El Correo EspaDol 74 10 82
 Egin 10 84 21
 Zazpiki irratia 74 34 74

18 ostirala

19:00 GAZTETXEko
BILERA
 Madalan

22:15 ZINE KLUBA
 "El funeral"

19 larunbata

11:00 GURUTZE
GORRIKOen
TXANGO
 Plaza Handian

11:00 TANBORRADAko
BILERA
 Kultur Etxean

19:30-22:15 ZINEA
 "El amor perjudica
 seriamente la salud"

20 igandea

12:30 BANDAREN
KONTZERTUA
 Herriko Antzokian

16:30 ZINEA
 "Matilda"

19:30-22:15 ZINEA
 "El amor perjudica
 seriamente la salud"

21 astelehena

22:15 ZINEA
 "El amor perjudica
 seriamente la salud"

24 osteguna

17:00 DIAPOSITIBA
EMANALDIA
 Izenburua: "Pamir-en
 bihotzean"
 Kultur Etxean
 Antolatzailea:
 Kutxa Fundazioa

19:30 HITZALDIA
 Hizlaria: Rafa Díez
 LABeko kidea
 Gaia: ELA eta LABen
 arteko batasuna eta
 E.H.ko eraikuntza
 Kultur Etxean
 Antolatzailea:
 Kimetz elkarte

22:15 ZINE KLUBA
 "Tesis"
 Antolatzailea:
 Ongarri zine kluba

25 ostirala

18:30 ODOL
ATERALDIA
 P.M. Urruzuno 8an

19:00 MARRAZKI
ERAKUSKETA
 Egilea: Alberto Ibañez
 Kultur Etxean
 Maiatzaren 11ra arte

22:15 ZINEA
 "Rescate"

22:30 KAFE USAINEAN
 Partehartzaileak:
 Duo Plaentxi, Silbia
 Hernandez, Tejero anaiak,
 txiste kontalariak eta
 Mari Karmen Elorza eta
 Jose Membrilleraren
 artelanak
 Kultur Etxeko sotoan
 Antolatzailea:
 Elgoibarko Izarra

ZIN



Zuzendaria: Manuel Gómez Pereira
 Antzezleak: Ana Belén, Penélope
 Cruz, Juanjo Puigcorbé, Gabino
 Diego.

El amor perjudica seriamente la salud

500 milioitik gorako aurrekontua duen komedia errealista da. Maitasuna, luxua, grina eta gizakiaren barreneko sentimenduen hatzamaradak tartekatzen dira emakume seduzitzailer baten eta berataz maiteminduta dagoen gizon noble baten arteko harremanean.

● “Kafe Usainean” egitasmoaren bigarren saioa

Datorren ostiralean, hilak 25, Elgoibarko Izarrak antolatzen duen “Kafe Usainean” egitasmoaren bigarren saioa izango da gaueko 22:30etatik aurrera Kultur Etxeko sotoan. Oraingoan ere musika saioak eta artelanak tartekatuko dira kafea eta pasteltxo bat hartu bitartean. Saio honetan Xigortze Merkatal enpresak kafea jarriko du, Salegi gozotegiak pastelak, Aitzbizkar bodegak edariak eta Karkizano mertzeriak mahaietarako oihalak. Musika atalean Silbia Hernandezek pianoa joko du, Duo Plaentxik mexikar kantak abestuko ditu, Tejero anaiek oboea eta zeharkako xirula joko dute, Oihana, Leire eta Elena mendarotarrek txiste kontari arituko dira eta ikusmena gozatzeko Mari Karmen Elorzaren gantxilo-lanak eta Jose Membrilleraren artelanak ikusgai egongo dira. Sarreraren zenbatekoa 500 pta.koa izango da. Aretoan 90 lagunen-tzako tokia egongo da geihenez.

● Gurutze Gorriko Gazteen txangoa

Gurutze Gorriko Gazteen Taldeak haurrentzako txangoa antolatu du biharko, hilak 19. Irteera goizeko 11etan izango da Plaza Handitik. Berri gehiagorako deitu 74 38 64ra.

● Musika Bandaren kontzertua

Domekan, hilak 20, ohiko kontzertua eskainiko du Udal Musika Bandak Herriko Antzokian. Eguerdiko 12:30etan eta Jose Antonio Osororen zuzendaritzapean bost musika lan joko dituzte: “Aragon & Bearn”, “La Cenicienta”, “Gernika”, “Bocetos del Caucaso” eta “Mambo Bando Uno”.

● Odol ateraldia

Datorren ostiralean, hilak 25, Gipuzkoako Odol Elkartearen talde bat Elgoibarren izango da odola ateratzeko. Ordutegi ohikoa da: arratsaldeko 18:30etatik 20:00etara bitartean P.M. Urruzuno 8ko egoitzan. Elkarteko arduradunek odola ateratzera joan daitezten animatu nahi dituzte deitutako guztiak.

● Tanborradako bilerarako bigarren deialdia

Trinitate jaietako nagusien tanborradarako bigarren bilerarako deialdia egitea erabaki dute antolatzaileek joan den larunbatean ez zelako inor agertu. Kultur Etxean goizeko 11etan izango da bilera. Oraingoan herriko kuadrilak agertzea espero dute.

● Rafa Díez, LABeko kidearen hitzaldia

Datorren ostegunera, hilak 24, Elgoibarko Kimetz elkarteak hitzaldia antolatu du ELA eta LABen arteko batasun sindikala eta Euskal Herriko eraikuntza nazionalari buruz. Gonbidatua LABeko idazkari nagusia den Rafa Díez izango da. Hitzaldia arratsaldeko 7:30etan hasiko da Kultur Etxean.

● III. Idazlan eta Marrazki Lehiaketa

Hilaren 23an Liburuaren Eguna ospatuko da. Elgoibarko Liburutegiak Marrazki eta Idazlan Lehiaketaren 3. edizioa antolatu du egun honetarako. Gaia istorio beldu-garriak izango da. Marrazki Lehiaketa 1. mailatik 4. mailara bitarteko hurrek parte hartu ahal izango dute eta Idazlan Lehiaketa Lehen Hezikuntzako 5. eta 6. mailakoek eta DBHko 1. eta 2. mailakoek. Lehiaketa bietan irabazleak nor diren apirilaren 23an bertan emango da ezagutzera. Kategoria bakoitzean bi sari banatuko dira, saria liburu sorta bat izango delarik. Bestetik, Liburutegitik edozein material ateratzeko txartel berria beharrezkoa izango da hilaren 30etik aurrera. Txartela berritzeko bi argazki eta NANA aurkeztu behar dira.

TXAN- DAK

FARMAZIAK

	Egunez	Gauetz
19	Yudego*	Escala
20	Yudego*	Escala
21	Yudego	Zabaleta
22	Etxeberria	Etxeberria
23	Bidasolo	Escala
24	Bidasolo	Bidasolo
25	Yudego	Yudego

*(eguerdiko 2ak arte)
Zabaleta: Kalebarren, 9
 Plazentzia. Tel: 75 13 84
Escala: Rekalde, 1
 Plazentzia. Tel: 75 16 38

OKINDEGIA
 20 igandea Idarraga

ONGARRI
zine kluba



Zuzendaria: A. Amenabar
Antzezleak: Ana Torrent, F. Martínez, E. Noriega, N. Herranz

Tesis (Goya 97 sarien irabazlea)

1997ko Goya sarien pelikula irabazlea izan da zinegile gazte honen lehen pelikula. Pornografiaren munduan ikeritzen hasten den neska gazte batek benetako biolazioak, torturak eta hilketak agertzen diren grabazio batzuk aurkitzen ditu. Zine espainiar berriaren barruan berrikuntza dakarren triller bikaina da.

Salerosketak

◆ SALDU ◆

◆ Logela baterako altzariak salgai: ohea, mesanotxea, hiru ateko armairua, eskritorioa eta estanteriak. Berriak **74 12 85**

◆ Renault 11 TXE, SS-AC eta Vespa motorra VI-I salgai. **76 08 51**

◆ Mobil-home saltzen dut portxe ederrarekin Errioxako Haro herrian. **79 13 96** (Arratsaldez)

◆ Sukalde bat saltzen dut egoera onean. **74 11 40**

Idazmakina elektronikoa salgai. **74 44 43** (17:30etatik aurrera)

◆ Jaunartzeko mutilen arropa salgai. **74 44 43**

◆ Opel Kadett salgai. SS-S. **74 04 75**

◆ Errepideko bizikleta bat saltzen da. Orbea etxekoa. Prezioa 15.000 pta. **74 11 29**

◆ Vespa motorra salgai. 200 cc. Egoera onean. **74 24 42**

◆ Suzuki Samurai SS-AF salgai. Egoera normalean. **907-24 29 25/74 31 81**

◆ EROSI ◆

◆ Land Rover motza erosiko nuke. **74 41 77** (20:00-21:00)

◆ Keroseno estufa erosiko nuke. **74 04 59** (gauetz)

Lana

◆ ESKAERA ◆

◆ Edozein lan mota egiteko prest nago. (Umeak, nagusiak zaindu). **75 26 75** Mari Karmen

◆ Neska euskalduna eskaintzen da etxeko lanak egin edo umeak zaintzeko. **74 06 09** Marisabel

◆ Etxeko lanak egiteko edo nagusiak eta umeak zaintzeko prest nago. Esperientzia daukat dependienta bezala. **74 22 78**

◆ Umeak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest nago. **74 28 43**

◆ Pertsona nagusiak zainduko nituzke, gauetz, asteburuetan... Hiru urteko esperientzia. Klinika axularra naiz. **74 25 17**

Etxebizitzak

◆ Santa Ana 16an pisua alokatzeko daukat. **74 37 14** (M. Luisa)

◆ Ekainetik aurrera apartamentu bat alokatzen da Benidormen Levanteko hondartzako lehen ilaran. Garbigailua, TB, igerilekua, parking-a. **74 20 31**

◆ Udan, uztailean izan ezik, Santa Polan (Alicante) bungalow-a alogeran **74 12 13**
Carmen (Gauetz deitu)

◆ Etxea dut alokatzeko Urasandin. Bista onak, lehenengo ilaran. **74 23 16**

◆ Etxebizitza saltzen dut Eulogio Estarta 3-4 ezkerrean. Hiru logela, komuna eta sukalde-jangela ditu. Prezio interesgarria.

71 53 71 (9etatik 16etara eta 19etatik 22etara. Manolo).

◆ Etxebizitza unifamiliarra saltzen dut. Duplex adosatua. 40m²-ko sotoa eta 3 fatxada. Prezio interesgarria. **13 16 83**

Bestelakoak

◆ Alemanian au-pair bat hartuko luke familia jator batek. **74 39 65**

◆ Joan den larunbatean, hilak 12, Arregitorreko plazatxoan umeen forro polar bat galdu zen. Aurkitu baduzu deitu. **74 12 31**

◆ Bataiorako mantoia eta armario bat behar du Caritas-ek. **74 15 09/74 12 57**

◆ Zuzenbidean lizentziatuak errenta aitoprenak egiten ditu. Tel: **74 01 13**

◆ Urre zuridun eraztuna, 9 bitxirekin galdu nuen Aste Santuan. Sarituko da. **74 03 44**

◆ Norbaitek kirol-boltsa urdin bat ahaztu zuen BARRENen Aste Santuko oporren aurretik. Etor dadila bila.

Garajeak

◆ Garaje itxi bat saltzen da Arregitorren. **74 12 53**

◆ Garaje bat salgai Leku-Ederreko 4. solairuan. (9etatik 13etara) **74 32 04**

◆ Garaje itxi bat saltzen dut Arregitorren. **74 34 10**

Partikularrak

◆ Euskarazko eta Lehen Hezkuntzako partikularrak ematen dira. Talde txikiak. **74 09 72** Garikoitz

◆ Matematika, kontabilitatea, praktika administratiboak, kosteen kontabilitatea eta abarri buruzko klase partikularrak ematen ditut. Maila guztiak eta talde mugatuak. Esperientzia dut. **74 21 65** Javi

◆ Ingeleseko partikularrak emango nituzke, bai eta itzulpenak egin ere. **74 15 82** Edu

◆ Latineko klase partikularrak hartuko nituzke. **74 12 64**

Agurrak

◆ 1970ean jaio, Ikastolan ibili eta afarira joan ginenok eskerrak eman nahi dizkiogu **Maria Pilarri** afaria antolatzeagatik. Eskerrik asko!

◆ Zorionak, **Ane**. Hobeto berandu inoiz baino.

◆ Zorionak **Elena Laskuraini** apirilaren 17an 10 urte bete zituelako. Guraso eta ahizparen partez.

◆ Hilaren 13an super 9 urte bete zituen **Iñigo Agirregomezkortari** supereuskalherriko zorionak 3A gelakoek.

◆ Zorionak **Iker Azpiazuri** apirilaren 16an 11 urte bete zituelako. Imanol eta Jonatanen partez.

◆ Zorionak **Ion Ortuosteri** hilaren 16an bere urtebetzea izan zelako. Emazte eta seme Unairen partez.

◆ Zorionak **Paulino Barriadari**, gaur, hilak 18, urteak bete dituelako. Familiaren partez.

◆ Zorionak **Victor Bellóni**, larunbatean, hilak 19, 15 urte egingo dituelako. Miresle batzuen partez.

◆ **Iñigliri** zorionak hilaren 27an bere urtebetetzea delako. DBH 2. mailako nesken partez.

◆ Zorionak **Iker Azpiazuri** apirilaren 16an 11 urte bete zituelako. Imanol eta Jonatanen partez.


◆ **Ikastolako Ikas Sei taldea** zorionadu nahi dugu larunbatean Gipuzkoako saskibaloitxapelketan partidua irabazi zituelako Almenekoen kontra. Aupa Ikas Sei!

◆ Super zorionak **Ana Etxaniz** joan den igandean korritu zituen bi krosak irabazi zituelako. Ikastolako 6. mailakoen eta bereziki bere mutilaren partez.

◆ Zorionak **Carlos Fejjoori** apirilaren 17an 12 urte bete zituelako. Pilarreko 6. mailako nesken partez.

Agurrak

◆ Super zorionak **Ainhoa Vazquez** hilaren 19an 9 urte beteko dituelako. Muxu handi bat gure pitufari guraso eta Leireren partez.



◆ Super zorionak, bihar, larunbate, 6 urte beteko dituen **Ane Belzari**. Ahizpen eta gurasoaren partez.



◆ Zorionak **Celia Dorsali**, astelehenean, hilak 21, bere urtebetetzea delako. Oihana eta Adrianen partez.



◆ Zorionak **Esther Larrañagari** hilaren 24n urteak beteko dituelako. Familia guztiaren partez, bereziki Maier eta Itziarren partez.




◆ Zorionak **Ioni** apirilaren 21ean 5 urte beteko dituelako. Nerea eta familia osoaren partez.



◆ Zorionak **Jennifer Riverori**, hilaren 22an bere urtebetetzea delako. Guraso eta aitonen partez.



◆ **Joseba De Pablori** zorionak astelehenean, hilak 21, 4 urte beteko dituelako. Guraso eta arrebaren partez.



◆ Zorionak **Igor**, igandean 25 urte beteko dituzulako. Patuak nahi izan du aurtin modu honetan zu zoriontzea. Idatzita zegoen!



◆ Super zorionak **Leire Pérezi** hilaren 14n 12 urte bete zituelako. Pilarreko 6. mailako nesken partez.



W Apirilak 23

W

Apirilaren 18tik
26ra

Eskaintza
bereziak:

Liburu

W
gehienetan

W



S. Frantzisko,
27
Tel / fax: 74

REZOLA

gasolindegia



ZERBITZU
BERRITUAK

Preziosoko
garbiketa

Garbiketa
neumatikoa

Aspiragailua

BERUNIK GABEKO GASOLINA ■ MICHELIN AGENTZIA ■ GURPIL NEURKETA

Datorren
ostiralean,
hilak 25,



Aurrez deituz gero,
nahi duzun ordurako
emango dizugu txanda

ORDUTEGIA


¥ Astegunetan:.....9:30 ?
13:00

.....15:00 ?
19:30

¥ Larunbatetan:....8:00 ?

Gizonezko, emakumezko
eta umeentzako
orrazkerak

Ezkongaientzat:
orrazkerak
makilaiak
(datorren hiletik aurrera)



Ostegunean, hilak 24,
LUNTXA 18:30etik
aurrera

AGER ZAITEZ!

San Bartolome, 4
atzealdea